

Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN And.

Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2024ko martxoaren 19an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, aho batez:

Erakunde Adierazpena, PP taldeak aurkeztua, Etxeko telelaguntza-zerbitzuari buruzkoa.

"Botoi gorria edo domina gorria" izeneko zerbitzuari esker, erabiltzaileek etengabeko arreta-zerbitzua izan dezakete etxean, eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan. Larrialdiko edo gizarte-premiako egoerei erantzun egokia emateko berariaz prestatuta dauden pertsonak ematen dute zerbitzu hori, euren kabuz edo beste baliabide komunitario batzuk mobilizatuz. Hori guztia etxean terminal bat instalatuz eta erabiltzaileak eraman behar duen sakagailu edo domina baten bidez egiten da.

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren mendeko zerbitzu horrek 68.817 erabiltzaile izan zituen 2023an, aurreko urtean baino 5.479 gehiago. Gaur egun, erabiltzaileen % 76,31 emakumeak dira. 2011n, 25.000 pertsonak baino ez zuten erabiltzen telelaguntza-zerbitzu hori.

EUSTATEk argitaratutako azken datuen arabera (2020), 2019ko urtarrilaren 1ean EAEn bakarrik bizi ziren 263.001 pertsonetatik –populazioaren % 12– hein handi bat adinekoak ziren. Fenomeno hori nabarmen hazi da azken 18 urteetan. 2001ean, 144.143 pertsona bizi ziren bakarrik, biztanleria osoaren % 7, hau da, gaur egun baino ehuneko 5 puntu gutxiago. Aldi horretan, bakarrik bizi diren pertsonen kopuruaren hazkunde-erritmoa % 3,4koa izan da urteko (batez besteko tasa metatua).

Krisi demografikoaren eragina gero eta nabarmenagoa da EAEn etxeetan, gero eta adineko gehiago bizi baitira bakarrik. Etxeko bakardadea faktore komuna da, hain

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 19 de marzo de 2024, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

Declaración Institucional, presentada por el Grupo PP sobre el servicio de teleasistencia domiciliaria.

"El conocido como "botón rojo ó medalla roja" es un servicio que permite a las personas usuarias disponer de un servicio de atención permanente en el domicilio, las 24 horas del día y todos los días del año, atendido por personas específicamente preparadas para dar respuesta adecuada a situaciones de emergencia o necesidad social, bien por sí mismo o bien movilizando otros recursos comunitarios. Todo esto se hace a través de la instalación de un terminal en el domicilio y de un pulsador o medalla que debe llevar el usuario.

Este servicio dependiente del departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales del Gobierno Vasco cerró 2023 con 68.817 usuarios, 5.479 más que el año anterior. El 76,31% de los usuarios de este servicio actualmente son mujeres. En 2011 eran sólo 25.000 personas las que usaban este servicio de teleasistencia.

Según los últimos datos publicados por EUSTAT (2020), las personas que viven solas en la C.A. de Euskadi eran 263.001 a 1 de enero de 2019, el 12% de la población, en gran medida personas mayores. La evolución de este fenómeno en los últimos 18 años refleja un importante crecimiento. En 2001, las personas que vivían solas eran 144.143, un 7% del total poblacional, 5 puntos porcentuales menos que en la actualidad. En este periodo el ritmo de crecimiento del número de personas que viven solas ha sido del 3,4% anual (tasa media acumulada).

El impacto de la crisis demográfica se hace cada vez más evidente en los hogares vascos, donde cada vez más personas mayores viven solas. La soledad en el hogar es un



zuzen ere eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan eskaintzen den etxeko arreta-zerbitzu horren erabiltzaile gehienen artean. Jaiotza-tasak behera egin du, eta egoitza batera joan beharrean etxean zahartu nahi duten adinekoen kopuruak gora egin du.

Etxeko telelaguntza balio handiko tresna bat da adineko pertsonen nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko, osasungintzako profesionalekin eta zaintzaileekin konexio zuzena eta azkarra eskaintzen baitie, eta laguntza emozionala eta konpainia eskaintzen baitie premia-uneetan. Gainera, segurtasun- eta lasaitasun-sentsazioa ematen die erabiltzaileei eta haien familiei, eguneko 24 orduetan, asteko 7 egunetan, eskuragarri baitago.

Zerbitzu horren abantailak asko eta oso desberdinak dira: erabiltzaileen osasuna eta ongizatea etengabe monitorizatu daiteke; arazoren baten aurrean azkar eta eraginkortasunez esku hartzeko aukera ematen du; adinekoen autonomia eta independentzia sustatzen da; arreta-zentro intentsiboagoetara lekualdatzeko beharra atzeratu egiten da; gizarteratzea sustatzen da, osasungintza-arloko profesionalekiko, zaintzaileekiko eta beste erabiltzaile batzuekiko komunikazioa eta harreman erregularra errazten baitu; isolamendu sozialari aurre egiten laguntzen du, eta lotura komunitarioak indartzen ditu, adinekoengan kidesasun- eta konexio-zentzua sustatuz.

Laburbilduz, etxeko telelaguntza tresna baliotsua da adinekoen nahi gabeko bakardadearen aurka borrokatzeko, eta konpainia, segurtasuna eta etengabeko laguntza eskaintzen ditu haien bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko.

Baina azken urteetan, zehazki 2020az geroztik, telelaguntza-zerbitzuan jarduten duten lantaldeak murrizten ari dira, eta erabiltzaile eskatzaileen etxeetan aparatuak instalatzeko orduan atzerapenak gertatzen ari dira.

Eskaera egiten denetik langile bat elkarriketa bat izateko eskatzailearen etxera joaten den arte sei hilabete inguru itxaron behar dira; hau da, urte erdi. Handik aste batzuetara, beste teknikari batek terminala instalatzen du etxebizitzan.

COVIDaren pandemia baino lehen, zerbitzua berehala ematen zen, eta izapide burokratikoak egin eta bi hilabetera, telelaguntzako terminala etxeetan instalatuta egoten zen.

factor común entre la mayoría de los usuarios de este servicio de atención domiciliaria, disponible las 24 horas del día, todos los días del año. Como resultado de la disminución de la natalidad y el aumento de personas mayores que prefieren envejecer en sus hogares en lugar de trasladarse a una residencia.

La teleasistencia a domicilio es una herramienta invaluable para abordar la soledad no deseada en la población mayor al ofrecerles una conexión directa y rápida con profesionales de la salud y cuidadores, brindando compañía y apoyo emocional en momentos de necesidad. Además, proporciona una sensación de seguridad y tranquilidad tanto para los usuarios como para sus familias, al estar disponibles las 24 horas del día, los 7 días de la semana.

Son muchas y muy distintas las ventajas de este servicio: su capacidad para monitorizar de manera continua la salud y el bienestar de los usuarios; un intervención rápida y eficaz ante algún problema; promueve la autonomía y la independencia de las personas mayores; retrasa la necesidad de traslado a centros de atención más intensiva; fomenta la inclusión social al facilitar la comunicación y el contacto regular con profesionales de la salud, cuidadores y otros usuarios; ayuda a contrarrestar el aislamiento social y fortalece los lazos comunitarios, promoviendo un sentido de pertenencia y conexión en la población mayor.

En resumen, la teleasistencia a domicilio representa una herramienta valiosa en la lucha contra la soledad no deseada en la población mayor, ofreciendo compañía, seguridad y apoyo continuo para mejorar su calidad de vida y bienestar.

Pero de un tiempo a esta parte, desde el 2020, el servicio de teleasistencia está sufriendo recortes en sus plantillas, así como demora en la instalación de los aparatos en los domicilios de los usuarios demandantes.

El tiempo de espera desde que se realiza la solicitud hasta que algún trabajador acude al domicilio para mantener una entrevista con la persona solicitante ronda los seis meses, medio año. Y semanas después, otra persona-técnico instala la terminal en el domicilio.

En años anteriores, antes de la pandemia del Covid, se prestaba el servicio con premura, llegando a instalarse el terminal de teleasistencia en los domicilios dos meses después de realizar los trámites burocráticos.



Hori guztia dela eta, Donostiako Udaleko Talde Popularrak honako adierazpen hau proposatzen du:

Es por ello que desde el Grupo Popular en el Ayuntamiento de San Sebastián se propone la siguiente

ERAKUNDE ADIERAZPENA

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio beharrezko izapideak arintzeko eta epeak laburtzeko, "BetiOn" etxeko telelaguntza-zerbitzua eskatu ondoren, hori ahalik eta lasterren eman dadin.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Vasco a que agilice los trámites necesarios y acorte los plazos para que una vez solicitada la ayuda el servicio de teleasistencia domiciliaria "BetiOn" ésta sea prestada a la mayor brevedad.

2. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailera bidera ditzala beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta pertsonalak, "BetiOn" zerbitzua erabiltzaile eskatzaileei ahalik eta azkarren emateko".
=====

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián pide al Gobierno Vasco que destine los recursos económicos y personales necesarios al Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales para que la prestación del servicio "BetiOn" llegue a los usuarios solicitantes lo más rápido posible".
=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, sinaduraren egunean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de la firma.

IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL

Nagore SARASOLA OTERMIN

**ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE:**